

DIRU SARRERAK

Udala arazo honen inguruan kontziente da, beraz diru kantitate eroso bat ordaintzeko prest egon daitekeela uste dugu. Gehien bat hasieran dena martxan jartzeko. Gainera, inbertsioak etorkizunean dirua aurrezteko balio izango du, azken batean, hilabete batzuk pasatzean erretzaileek zigarro-puntak lurrera bota beharrean makinan sartuko balituzte, garbiketa enpresa gutxiago kontratatu beharko lituzke udalak. Makinak saltzen hasi eta gero, gure diru-sarrerak gehien bat salmentan eta publizitatean oinarrituko dira; izan ere, gure makinak bezeroei berriei salduz gain, publizitatea hainbat komunikabide desberdinetan egiten saiatuko gara, irratia, telebistan edo sare sozialetan esate baterako. Gainera, gure enpresak zerbitzu berezia eskainiko die dagoeneko bezero direnei, hondatutako edo apurtutako makinak konpontzeko, eta, horrela, gure produktua daukaten bezeroek ez dute makina berriak erosi beharko.



Makina bakoitzeko prezioari dagokionez, 200 euro ingurukoa izango da, eta kostu honek finkoa izango da. Horregatik diogu inbertsio handi bat dela; izan ere, herri ala hiriaren tamainaren arabera, udalak makina kopuru bat erosi beharko du. Hala ere, denborarekin makinaren inbertsioaren ondorioak ikusiko dira herri edo hiri inguruneetan, garbiketan... inbertsioa errentagarria eginez. Makina hauek ekoiztea duen kostua salmentekin konpentsatuko dugu, horrela kostuak ez dira etekinak baino handiagoak izango eta enpresak ez du galerarik izango. Kostuak etekinak baino handiagoak izan ez daitezen produktu bakoitzaren prezioan unitate bakoitzeko ekoizpenaren kostua baino altuagoa izango da, modu honetan zailagoa izango da galerak izatea.